

HEZKUNTZA. Debarreneneko Gestio Eskolarekin akordio bat sinatu du, hedapen planaren barnean

Mondragon Unibertsitateak beste campus bat zabalduko du Elgoibarren

Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziaturaren lehen zikloa eskainiko dute

Erredakzioa | DONOSTIA

Mondragon Unibertsitateak bere hedapen proiektuarekin aurrera jarraitzen du. Gestio Eskolarekin sinatutako akordioari esker, Debarrenenera zabalduko du bere hezkuntza eskaintza; hain zuzen ere, Elgoibarren kokatuko du egoitza berria.

Akordioari esker, Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziaturako lehen zikloa Elgoibarko Gestio Eskolan ikasi ahal izango da. Unibertsitateko campus berriak 160 ikaslerentzako lekua izango du, eta datorren ikasturtean zabalduko ditu ateak.

Gestio Eskolak eta Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien fakultateak proiektu horretan elkarrekin lan egitea hitzartu dute. Gestio Eskola ere goi mailako enpresa kudeaketaz eta zuzendaritza ikasketez arduratzen da.

Horri esker, datorren ikasturteko aurrera, Oñati eta Elgoibarko campusetan eskainiko da Mondragon Unibertsitateko lizentziatura horren lehen zikloa. Bigarren eta hirugarren zikloa, berriz, Oñatiko campusean bakarrik egin ahal izango dute ikasleek.

Akordio horrek, era berean, beste formazio batzuk gehitzea aukera aurreikusten du: besteak beste, formazio jarraia, ikerkuntza eta garapena, enpresa sustapena, ikasketa-lana praktikak eta enpresa proiektuen bateragarritasuna.

Aurreikusitako ekintza guztiak Elgoibarko Gestio Eskolan egingo dira, hala ere, Mondragon Unibertsitateko eta Gestio Eskolako filosofiari jarraituko diote.

Unibertsitatea zabaltzea helburu

Gestio Eskolak eta Mondragon Unibertsitateak sinatutako hitzarmenaren bidez, Mondragon Unibertsitateak Deba eskualdeko garapena bultzatu nahi du, unibertsitateak han kokatuz.

2000. urtean unibertsitateak zortzi urterako egindako Plan Estrategikoan ageri da proiektu hori.

Unibertsitatearen ezagutzak eta esperientziak beste eremu geografikoetara zabaltzea da hedapen horren helburua. Bere presentzia hedatzea unibersi-

tatearen 16 helburu estrategikoen barnean dago.

Mondragon Unibertsitateak 2000. urteko abenduan hasi

zuen hedapen proiektua. Orduan eman ziren planaren lehen urratsak: Goierri Goi Maila Eskolarekin akordio bat

sinatu zuen, eta elkarlan horri esker, campus berri bat du, egun, Ordizian.

Geroztik, Mekanika arloko

Ingenieritza Tekniko Industriala ikasteko aukera dago Goierriko eskualdean.

Ordiziako campusaz gain, Arrasaten, Eskoriatzan eta Oñatin ere baditu ikasketa zentroak Mondragon Unibertsitateak.

Datorren ikasturteko aurrera, beste bat gehituko zaio zerrenda horri, oraingoan, Debako eskualdean kokatuko da, Elgoibarko Gestio Eskolan, hain zuzen ere.

**El Valor es la Persona
Pertsona da Balioa**

Universidad de Deusto **Deustuko Unibertsitatea**

Solicitudes de ingreso

Curso 2002-2003

Licenciaturas / Ingenierías

- Derecho
- Especialidad Económica
- Historia: Antigua y Medieval Moderna y Contemporánea (Bilbao)
- Historia: Patrimonio Cultural (San Sebastián)
- Filología Hispánica
- Filología Inglesa
- Filología Vasca
- Humanidades: Empresa Comunicación (San Sebastián)
- Filosofía
- Psicología
- Pedagogía
- Psicopedagogía (2.º ciclo)
- Antropología Social y Cultural (2.º ciclo)
- Administración y Dirección de Empresas (Bilbao y San Sebastián)
- Estudios Eclesiásticos (Bachillerato en Teología)
- Sociología
- Ingeniería en Informática (2.º ciclo)
- Ingeniería en Organización Industrial (2.º ciclo)
- Ingeniería en Automática y Electrónica Industrial (2.º ciclo)
- Ingeniería de Telecomunicación (2.º ciclo)

- Ingeniería Técnica Industrial, especialidad en Electrónica Industrial
- Ingeniería Técnica de Telecomunicación, especialidad en Telemática

- Ingeniería Técnica Industrial, especialidad en Electrónica Industrial
- Ingeniería Técnica de Telecomunicación, especialidad en Telemática

Otros Estudios

- Secretariado de Dirección
- Plazos de entrega:**
Estudios en Bilbao y Vitoria, del 4 de febrero al 15 de mayo.
Estudios en San Sebastián, del 15 de enero al 10 de mayo.
La Universidad permanecerá cerrada del 27 de marzo al 7 de abril

Horario:

- De 9.30 a 12.30 y de 16.00 a 18.00 horas, de lunes a viernes
- Información y obtención del impreso de solicitud:**
Estudios en Bilbao y Vitoria: Secretaría General
Avda. de las Universidades, 24 48007 Bilbao
Tels.: 944 139 000, 944 139 061 y 944 139 064 (Vitoria)

- Administración y Dirección de Empresas (Bilbao): Secretaría de La Comercial
Avda. de las Universidades, 24 48007 Bilbao
Tels.: 944 139 262 y 944 139 263

Diplomaturas / Ingenierías Técnicas

- Educación Social
- Turismo (Bilbao y San Sebastián)
- Trabajo Social
- Ciencias Religiosas
- Ingeniería Técnica en Informática de Gestión (Bilbao y Vitoria)

Sartzeko eskaerak

2002-2003 ikasturtea

Lizentziaturak / Ingeniaritzak

- Zuzenbidea
- Economía Especialitatea
- Historia: Antzinarako eta Erdi Aroko Mundua Modernoa eta Garaikidea (Bilbo)
- Historia: Kultur Ondarea (Donostia)
- Hispaniar Filologia
- Ingeles Filologia
- Euskal Filologia
- Giza Zientziak: Enpresa Komunikazioa (Donostia)
- Filosofía
- Psikología
- Pedagogía
- Psikopedagogía (2. zikloa)
- Gizarte eta Kultur Antropologia (2. zikloa)
- Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (Bilbo eta Donostia)
- Eliz Ikasketak (Teologiako Batxilergoa)
- Soziologia
- Informatikako Ingeniaritza (2. zikloa)
- Industri Antolaketako Ingeniaritza (2. zikloa)
- Industri Automatika eta Elektronikako Ingeniaritza (2. zikloa)
- Telekomunikazioko Ingeniaritza (2. zikloa)

Diplomaturak / Ingeniaritza teknikoak

- Gizarte Hezkuntza
- Turismoa (Bilbo eta Donostia)
- Gizarte Lana
- Erlijio Zientziak

- Kudeaketa Informatikako Ingeniaritza Teknikoa (Bilbo eta Gasteiz)
- Industri Ingeniaritza Teknikoa, Industri Elektronikako especialitatea
- Telekomunikazioko Ingeniaritza Teknikoa, Telematikako especialitatea

Bestelako ikasketak

- Zuzendaritzako Idazkaritza
- Eskaerak aurkezteko epeak:**
Bilboko eta Gasteizko ikasketak, otsailaren 4tik maiatzaren 15era.
Donostiako ikasketak, urtarrilaren 15etik maiatzaren 10era.
Unibertsitatea itxita egongo da martxoaren 27tik apirilaren 7ra

Ordutegia:

- 9.30 - 12.30 eta 16.00 - 18.00, astelehenetik ostiralera

Argibideak eta eskaera-orriak eskuratzeko:

- Bilboko eta Gasteizko ikasketak: Idazkaritza Orokorra Unibertsitateetako etorbidea, 24 48007 Bilbo
Tel.: 944 139 000, 944 139 061 eta 944 139 064 (Gasteiz)
- Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (Bilbo): La Comercial-eko Idazkaritza Unibertsitateetako etorbidea, 24 48007 Bilbo
Tel.: 944 139 262 eta 944 139 263

- Donostiako ikasketak: Idazkaritza Orokorra Mundaiz bidea, 50 20012 Donostia
Tel.: 943 326 600

944 139 000

www.deusto.es